



Sagarbide-Otalora baserria gaur egun. Ezkerreko puskan eduki zuten gitzapetuta Manuelen ama zena. CARLOS VILLAGRAN

Lau bat urte nittula edo, artian lurpeko bodegan sartu baiño leno, akordutatze naiz ama zanak Donostia iesi nola itte zuan. Bi alditan beintzat akordatzen naiz nola ekarri zuben. Batian, izeba Mariak eta izeba Iñaxik ekarri zuten, bien erdian artuta. Bestian berriz, izeba Teresa eta izeba Iñaxik ekarri zuben Donostitikan.

»Donostitikan ekarri zuenjan, nik beti amagana jotze nun. Ama oso maittia nuan nik.

»Lau urte nittuaneko kontubak dia abek. Esango du jendiak, umia nitzala ta nola jakin dezazketen kontu abek; ezin leiken gauza dala; baña, gaur bertan pasiak balia bezalaxe dazkat nik goguan kontu abek danak. Gaur oraindik Sagarbiden daguan osaba Joxemaik nearra ingo du kontu abek aitzian, baña, beak badaki ondo asko, egiyak diala! Ta nik ez dakat egiyak esateko lotsik!

»Joxemaik beak, Zerbezeira lanea jun bittartian eiten zizkian azioake ondo goguan dazkat: zerri plantak eñez nola jartze zan zaku batekin tapauta gau illunian ni ikazteko. Ortako, apustua eite zian lenbizi. Sagarbideetik Puntanoetako alorra berreun bat metro izango dia, ta an arto berdiak izate zian, ta andik arto orria ekartze banun amar xentimokoa eman biar zian ark niri, ta ekartze ez banuan berriz nik ari.

»Ta, nik ze ite nun: jun ilunpetan, arto orria poltsian sartu, ta poltsian ekartze nuan. Ta Joxemai ta orik bittartian ni ikazteatik bire ertzea ateatze zian zaku zarrak jantzita zomorro plantak eñez. Len esan dean bezala, lau bat urte izango nittun nik orduan, ta oik berriz sasoiko mutillak: osaba Joxemai, osaba Luis amabost bat urtekoa, osaba Joxe Bentura berriz, orduako ogeita amarretik gora zana...

»Nik oik danak, abemaria bezalaxe dazkat goguan, ta gure etxeko osaba Joxemaik, gauz oiek aitzen baittu, badakit nik near ingo una. Baña, egiak dia, beak ondo dakin bezela, zeatik bea ola ibiltze zaneke kuntuak bait dia. Ari iduittuko zako, orduko kontubak nik ez nezazkela esan, baña nere memoria ez du iñok borratuko, ni bizi naizen artian!

ENDAFETA BASARRIAN MORROI

Alaxekuak ikusi nittuan nere aur denboran. Bi urte t'ardi nittula ekarri niñuen Aretxabaletatik Sagarbidera, ta emeretzi urte arte an bizitu nitzan, Endañeta arrijasotzailian etxera morroi jun nitzan arte. Bitartian iñok etzian ezer ematen; kalia jundare ez nuan xentimorik izaten; ta orregatik jun nitzan morroi Endañeta: neretzako peza batzuk ateatzea. An denbora askoan eondu nitzan, iñora atea ta ezer inbe. Ni an nengoala, saldu zuan gure aittona zanak Sagarbide basarria, artian nik etxian naukan deretxoaz ezer ez nekiala. Ezin nere deretxorik eskatu! ez nekian ezer eta, nola eskatuko nuan ba! Ogeita iru urte nittuan nik orduan, aittonak basarria saldu zuanian.

»Ala, denbora jun denbora etorri, ezkontzia pentsatu nuan. Baiña pos-

Galderatxo bat egiten zuten
Amatxo il zan tokian:
Santa Agedan ill aurretikan
Non eta nola bizi zan?
Galdera ari ezentzun egin
Ta orrela estali zan.
Begirazazu zer esaten dan
An jaso zan agirian.

Orra amasei bertso eskeñi
Lurretik zeru argira.
Amatxo maite badakit ondo
Zaudela niri begira.
Ainbat zorigaitz eraman zendun
Betiko bizitokira
Baña ordaiñez otso zar abek
Infernun erreko dira.



Zumaia erakusten duen koadro bat du Manuelen Leitzako etxean. C.VILLAGRAN

turaz. Ni orduan, etxeko morrontzari utzi, eta brigadan kaltadore aitzen nitzan lanian Bilbao-Sansebastianeko ferrokarrillian. Ta an lanian nebillala, oain Sagarbiden daon osaba Joxemai orren semiak, biak asarretu eta borrokan asi zian beñ etxian. Ta nik apartau nittuan. Batek amasei amazapi urte eta bestiak ogei bat urte zeuzken oyek, baña nik orduan, ogeitamabi urte nazkan da, ez bat, anai biyake jota puska eingo nittun

▼
«LAU URTE NITTUANNEKO kontubak dia abek. baña, gaur bertan pasiak balia bezalaxe dazkat nik goguan kontu abek danak».

EGUNKARIAREN OHARRA:

Berak kontatutakoa baieztatzeke, bi tokitara jo daitekeela aipatu zigun Manuel Garate Urbistondok: Gipuzkoako Diputaziora eta Santa Agedara. Diputaziora Manuel berarekin joan, bere jaiotze agiria eskatu eta zera ikusi genuen: paperek ez dutela erakusten bere aitona 2.000 pezeta jaso zituenik. Izan ere, 2 urte zituela amari entregatu zioten Manuel haurra, eta behin haurra entregatua izanez gero doterako eskubidea galdu egiten zen berehala. Beraz, badirudi Diputazioko Andresek ez ziola egia esan, beharbada on beharrez jokatu bazuen ere. Halaxe aitortzen du orain Manuel Garate berak ere.

Santa Agedan ez gara izan, baina bertara deitu eta Josefa Garate Urbistondo sartu zeneko paperak begiratu ondoren zera esan ziguten: 1933ko martxoaren 1ean sartu eta martxoaren 7an hil zela. Beraz, Manuelek hogeiki egun aipatzen baditu ere, zazpi besterik ez zituen egin bere ama zenak Santa Agedan.

nai izan ezkeo. Anaia zarrak aintze zion artoa lakaerditzeke, txekorrai emateko, ta bestiak etzuala eingo. Gu ganaduai, batek azpik kendu, bestiak jaten eman, osabak beyak jetxi, ta ola ai giñan,... Ta borrokari ekin ziotenian, riki raka apartatu nittun, eta ala esan nion anai gaztiai:

»— *Motell ola zertan abill, iri oaiñ arte jaten ematen aittu dianak, ez due deretxorik iri lana aintzeke? Durua osatzeko oixe bakarra falta uan!*

»Ta beste anaiak, Joxemaik erantzun zian:

»— *I zeñ aizela uste ek Xaarbiden? I ez aiz geo iñorre emen e! I ez aiz gaiñea emengua e!...*

»Azkenian, paketu giñanian, nola osabak eta izebak ezer argitu etzuen, nola nere alde itzik atera etzuen, etxetik aldeittia pentsatu nuen nik. Zerbatt eskatu nai izandare, enekin ezerre, enekin ezer tokatzen bazitzatane, ta etsian aldeittia pentsatu nuan.

»Biamonian lanea jun nitzan; kontua eskatu; eta Zumayako Andika Zar baserrira aldein nuan. An urtebete ein morroi, ta andikan Ondarrabiko Zigarroa basarria jun nitzan. An sei illabete ein morroi, ta berriz, Mutrikuko Laranga Txikira jo nuan. An iru urte inda, berriro etxera bildu nitzan, baiña oso denbora gutxiko! Eztakit... bost sei illabete eingo nitun geyenez. Laxter, Zumaiko astilleri

batian asi nitzan lanian, ta kalian pisu bat artu nuan errentan. Neuk bakar bakarrik pasa nittun beatzi illabete pisu artan.

»Orduko banakan andregaia, oaingo andria deten Anamari au, eta ezkondu eñ giñan, ta pisu artan jarri bizitzen. Gero, aurdun jarri zanean, oain dakaten seme zarren au izateko, Naparruko Puente La Reinara jun giñan bizi izatera, andriaren gurasuen anparura, ayen aldameneko pisu batera. An semia izandu, eta Azurtzi Errotara etorri giñen Tolosa. Etxia emango zitzakula eo esan zuten radiotikan, da ala etorri giñan, tratua eñ ondorian. Albizturko Panaderin ogia irabazten nuan nik orduan.

»Tolosan bizi nitzala jaio zitzaten bigarren semia. Ondo etorri balitz utsa: denbora gabia, ta gaiñea suanormala. Inkubadoran sei illabete in zittun. Ta an gendukala etzuan seguruak kubritu nai, ta Madritik etorri zan papera, ta nausiai, Tomas Zubizarretai, pápera entregau nion, ta ala esan zian:

»— *Papera nei ekartze iazu!? Paper au nik ez det firmatuko!*

»— *A, zuk atea kontuak. Nik eiña ezta!... Au Madritik datorren papera da, ta kontuz ibilli zaitte e!*

»— *Igoal dio Francok eiña bada-re. Nik ez det au firmatuko!*

»Ta, nik atzea, Institutora bialdu nuan papera, ta andik bueltan etorri zan ordena: nei ordaintzeke zor zittunak eota bestela atiak itxiko zitzazkola. Ala ordaindu zikian Zubizarretak niri zor zizkianak. Baña, neu bildurtu nitzan. Beñ okertu ezkeo, ez nuala gauz onik izango, ta aldeñ eñ nuan lantokitik.

»Gero, Berrobiko Alberdin zerratein sei zazpi illabete eo einda, Sarriora pasau nitzan, Leitzea. Ta, geroztik amen bizi naiz. Emezortzi bat urte eñ nittun Sarrion lanian, ta oaiñ jubilauta nago. Eskupeko ona ere eman zian Sarriok lana uztearren: bi milloi t'ardi; ta zarpartia ere bai, polikitxo. Ta oraiñ ia, ondo naizela esate moruan naiz, jainkoari eskerak. Eziñ kejutuko naiz. Ederki kostata, baña, ondo bizi naiz oaiñ».

▼
«GAUR ORAINDIK Sagarbiden daguan osaba Joxemaik nearra ingo du kontu abek aitzian, baña, beak badaki ondo asko, egiyak diala!»